



Ipuingintza eta poesia tailerra (0 - 11 urte): idatzitik ahozkoa eta ahozkotik idatzira



09.Jul - 11.Jul 2018

Cód. L06-18

Mod.:

Presencial

Edición

2018

Tipo de actividad

Taller

Fecha

09.Jul - 11.Jul 2018

Ubicación

Donostiako Haur Liburutegia

Idiomas

Euskera

Validez académica

30 horas

DIRECCIÓN

Itziar Zubizarreta Ayerbe, Galtzagorri Elkarte, zuzendaria

Comité Organizador

Fundación
BBVA



Descripción

Tailer honetan, haur literaturaren ahozko eta idatzizko baliabideak aurkeztu eta erabiliko dira: ipuin kontaketak, poesia jokoak eta liburu ederrak.

Haur literatura bidelagun interesgarria da gaztetxoaren hazkuntzan; hausnarketa bideak marrazten ditu eta garapen moralean eta intelektualean mesedegarria suertatzen da, ulermen estrategiak areagotzen dituelarik. Sormena, ikuspegi estetikoa eta fantasia suspertzen ditu aldi berean eta arreta eta egonkortasuna mantentzeko lagungarria bilakatzen da.

Baina onura hauek ahalbidetzeko, ezinbestean, kalitate literarioa hartu behar da kontutan; baita ere ekintza literarioak gaztetxoekin partekatzeko estrategiak. Gure tailerrak bete-betean helduko die baliabide egokien aukerari eta hauek ikasleen artean zutik jartzeko bideei; halaber, eguneroko praktika sistematizatzeko proposamen zehatzak eskainiko direlarik.

Objetivos

Tradizio literarioaren oinarriak baloratu; bai poesian baita ipuingintzan ere.

Literatura, poesia eta ipuingintza, sormenaren oinarrian.

Ipuin kontaketak eta poesia erabiltzeko baliabideak.

Kalitate literarioen inguruko irizpideak.

Programa

09-07-2018

09:00 - 09:15	Dokumentazio banaketa
09:15 - 11:00	“Ahozotik idatzira /idatzitik ahozkoa: kalitatezko literaturaren erabilera” Itziar Zubizarreta Ayerbe Zuzendaria
11:00 - 11:30	Pausa
11:30 - 14:00	“Poesia eta Ipuin proposamenak: materialak eta baliabideak” Juan Kruz Igerabide Sarasola Irakaslea

10-07-2018

09:15 - 11:00	“Tradizio poesia: molde jakinak eta sormen bideak “ Itziar Zubizarreta Ayerbe Zuzendaria Juan Kruz Igerabide Sarasola Irakaslea
11:00 - 11:30	Pausa
11:30 - 14:00	“Narrazioak: tradizioa abiapuntu, kontaketa gaurkotuak” Itziar Zubizarreta Ayerbe Zuzendaria Juan Kruz Igerabide Sarasola Irakaslea
16:00 - 18:00	“Taldeen azalpenak” Itziar Zubizarreta Ayerbe Zuzendaria Juan Kruz Igerabide Sarasola Irakaslea

11-07-2018

09:15 - 10:30	“Literatura idatzia: aldez aurreko prestaketak, liburu aurkezpenak eta album ilustratuen kontaketa” Itziar Zubizarreta Ayerbe Zuzendaria
10:30 - 11:30	“Liburu azterketa “ Juan Kruz Igerabide Sarasola Irakaslea
11:30 - 12:00	Pausa
12:00 - 14:00	“Irizpideak, baliabideak, saioak” Itziar Zubizarreta Ayerbe Zuzendaria

Dirigido por:



Itziar Zubizarreta Ayerbe

Galtzagorri Elkarte, zuzendaria

10 urtez Herri Ametsa Ikastolan HHko irakasle izan ondoren, Elizbarrutiko Irakasle Eskolan, Hizkuntza eta Haur Literaturaren Didaktikako irakasle izan zen. 1991tik aurrera, hainbat ikastetxetan Hizkuntz-trataeraren berrikusketak burutu zituen metodologia eta baliabide proposamen zehatzak bideratuz. 2002tik aurrera, Galtzagorri Elkarterako hainbat egitasmo diseinatu eta aurrera eraman zituen: Bularretik Mintzora eta Areto Literarioak kasu. Zuzendaritza batzordearen enkarguz OEPLi elkarteko lehendakaria izan zen eta Mari Jose Olaziregirekin elkarlanean komisario lanak burutu zituen Haur eta Gazte Lteraturako IV. Iberiar Biltzarra: “Desberdin irakurriz” Donostian 2008an.

Profesorado



Juan Kruz Igerabide Sarasola

Juan Kruz IGERABIDE SARASOLA Adunan jaio zen (Gipuzkoa) 1956an. Zenbait urtean lehen eta bigarren hezkuntzako irakasle izan ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle jardun da Euskal Filologia sailean. Mikel Laboa Katedraren zuzendaria ere izan da aipaturiko unibertsitatean. Haur eta gazteentzat idatzi du gehienbat, eta baditu zenbait lan helduentzat ere, hala poesian nola prosan. Haur literatura ikertuz, besteak beste saiakera bat idatzia du (Bularretik mintzora, Erein, 1994).

Precios matrícula

MATRÍCULA	HASTA 31-03-2018	HASTA 31-05-2018	HASTA 09-07-2018
Miembro de AEK	71,25 EUR	-	-
GENERAL	-	81,00 EUR	95,00 EUR
MATRÍCULA REDUCIDA	-	48,00 EUR	-
EXENCIÓN DE MATRÍCULA	-	20,00 EUR	20,00 EUR
MATRÍCULA ESPECIAL	-	48,00 EUR	-
Tarjeta soci@ ELKAR	-	71,25 EUR	-

Lugar

Donostiako Haur Liburutegia

Fermin Calbeton Kalea, 25

Gipuzkoa